

ILDO ESTRATEGIKOAK

- Ikasleak dira euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria; horregatik, funtsezkoak dira haien ongizate emozionala eta zaintza, arrakastaren bermea, inklusibitatea, curriculumaren uniber- tsaltasuna eta irteera-profila, XXI. mendeko erronkei pertsonalki, sozialki eta profesionalki aurre egiteari begira. Hori guztia, ongizate emozionaleko inguru inklusibo eta seguru batean.
- Ikastetxea da hezkuntza-eraldaketarako ardatza, erakunde ahaldundua, lidergoa banatzea sustatzen duena (antolaketa-kudeaketa, kudeaketa pedagogikoa...) eta hezkuntza-komuni- tate osoaren ikaskuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza bultzatzen duena. Horretarako, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxeen autonomia sus- tatuko du.
- Irakasleek rol aktiboa hartu behar dute ikaskuntza-prozesuan, eta, hain zuzen, beren irakas- kuntza-eremu, arlo edo ikasgaietan eta trebetasun didaktiko eta metodologikoetan duten aditu mailako ezagutza da haien lidergoaren oinarri. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko jardueretan, bai eta talde- lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan edo ikasleak guztiz garatzeko benetan balio duen beste edozein irakaskuntza edo ikaskuntza modalitatetan ere. Tutorearen rola etapa guztietan indartzen da, tutorea ikasleen bideratzaile eta gidari gisa hartuta, ikasle guztien elkarbizitza ona eta arrakasta lortzeari begira.
- Konpetentzia-curriculuma ikaskuntza sakon eta funtzional jakin baterantz bideratzen da: ikasten dena era bateko eta besteko egoeretan erabil daiteke, denboran zehar irauten du eta aukera ematen du egoera errealetan problemak konpontzeko.
- Hezkuntza linguistiko eta eleaniztunaren kalitatea funtsezkoa da: beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ematen ditu errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeko, ezagutza transmititzeko eta mundua ikusteko eta ulertzeko eta besteekin hartu-emanak iza- teko era jakin bat transmititzeko. Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin – hizkuntza propioa baita– eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen- eta elkarbizitza-tresnatzat hartzen dituen heinean, baita beste hizkuntzekin ere. Gainera, hizkuntza- eta eleaniztasun-konpetentzia garatzeak gainerako funtsezko konpetentziak garatzera bultzatzen du, eta, beraz, beste arlo batzuen zerbitzura dago konpetentzia hori.
- Curriculumerako sarbidearen unibertsaltasuna. Hezkuntza jasotzeko aukera guztiek izatea ekarriko du eta benetako integraziorako, aukera-berdintasunerako, erabateko parte-har- tzerako eta eskola-arrakastarako bidea markatuko du. Ikaskuntzarako garapen unibertsala hartuko da aintzat irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan.
- Hezkidetzat funtsezkoa da pertsonen sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero- adierazpenaren araberrako estereotipoetatik eta roletatik kanpo garatzen laguntzeko, eta bera izango da hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa eta ikastetxeen antolaketa peda- gogikoarentzako irizpide orientatzailea, maila eta modalitate guztietan.
- Arreta berezia jarri behar zaie ikasleen ongizate emozionalari eta hezkuntza-komunitate osoa zaintzeari. Ondo eta harmonian sentitzearen esperientzia subjektiboa sartzan da hor, eta norberaren gogobetetasuna ere bai, zailtasunei aurre egiteko eta haiek ondo gainditzeko segurtasuna ematen duena. Ongizate emozionala funtsezkoa da ingurune eskareari eta egoerei aurre egiteko edo horietara egokitze, eta eskaera eta egoera horien artean dago ikaskuntza ere. Curriculumak ongizate emozionalean lagundu behar du.